

# B

BARREN



**“Zaila da supergaitua zarela esatea harrokeria kutsua eman gabe”**

**Patxi Garcia, Mensa erakundeko lehendakariordea**



ELGOIBARKO  
UDALA



**Etxean, sailkatu  
zaborra gaika**

Eman izena edukiontzi  
marroia erabiltzeko:

943 741 050 edo [arreta@elgoibar.net](mailto:arreta@elgoibar.net)



**25€**

# Sanbartolomeetarako menu berezia!

Abuztuak 5etik abuztuak 22ra arte oporrak.  
 Erreserbak: (Oporretan egon arren, erreserbak hartzen ditugu)

- Karakate jatetxea: 943 741 244
- Esti: 689 575 063
- Santos: 656 707 429

**KARAKATE**  
 jatetxea - restaurante  
 ELGOIBAR

Pol. Olaso, Olasope 1 - Tel.: 943 741 244  
 karakatejatetxea@hotmail.com

**Badatoz Sanbartolomeak!**

Publizitatea jartzeko:  
 943 744 112  
 barren.publi@elgoibarkoizarra.com



Esti  
Gonzalez

Badaramatzagu hitu aste udaran murgildurik, eta honek ezinbestean dakarkit gogora txikitari igarotzen genituen uda luze haien oroitzapena. Asteak eta asteak pasatzen genituen kalen berandurarte jolasen, hondartzan beltzarantzen, harkaitzetan izkirak eta lapak hartzen... Bazirudien garai hura amaigabea zela eta iraila ez zela inoiz iritsiko.



Miren  
Vives

Orain hobeto, Esti, orain hobeto. Izan ere, eguzkiak lanak erraztu dizkigu!

Gurea ez da kasurik arruntena: biok elkarrekin lan egiten dugunez eta autonomoak garenez txandaka lan egiten dugu. Beraz, bata lanean dagoenean bestea umeekin dago: laurok elkarrekin, asteburuetan soilik. Ingurukoak gehiegi ez mareatzen saiatzen gara, bestela ere mesede gehiegi eskatu beharrean izaten gara eta. Hala ere, arrazoi duzu: ibilbide handia daukagu oraindik aurretik lana eta familia modu egokian uztartu eta bakoitzari merezi dituen orduak eskaintzeko.

Baina egunerokotasunak dakarzkigun miseriak alde batera utzita, umeei gure udarek eman dien dimentsio berria dut gogoko. Izan ere gure txikitako hondartzako abenturak errepikatzen moduan gara orain! Bukatu dira toailan etzan eta eguzkia hartzen pasa beharreko arratsaldeak: badugu hondarretan kroketa bilakatuta egoteko aitzaki bikaina, bikiniak gure gorputzean sortutako inperfekzioetan erreparatzeko astirik gabe. Jolasteko irrikitan nago aurten ere: hondarrezko txalupak eraiki eta urak nola apurtzen duen ikusi, marearen aurkako burruka galduan; edota mendi bati zenbat zulo egin diezazkiokegun aztertu, bertan behera erori baino lehen.

**“Ibilbide handia daukagu oraindik aurretik lana eta familia modu egokian uztartzeko”**

Ez dakit gure alaben udako oroitzapenik maiteenak zeintzuk izanogo diren, baina nik ditudan bezain onak izatea gustatuko litzaidake. Oraindik gogoan dut nire gurasoek beraien txikitako hondartzako abenturak nola kontatzen zizkiguten. Agian, hondartza izango da gure txikitako garai zorionsuenetara eramaten gaituen espazio amankomuna; hala nolako denboraren makina. Aprobetxatu amatasunak (eta aitatasunak) haurtzaro zorionsura itzultzeko eman digun aukera berri hau, merezi du eta!

Antzerako sentsasioa dago nire barnean azken egunotan, udara amaigabea dela, alegia. Kasu honetan baina, antolakuntza aldetik udarakuposatzen duenagaitik! Zorionez, etxetik kanpo lan egiten dugun emakumeak gara, baina emakumeak lan mundura murgiltzeak berarekin ekarri beharko luke gizarte eraldaketa handiago bat, hainbeste entzuten den kontziliazio familiarra benetako errealitate izan dadin.

**“Gure familiaren kasuan aitxita-amamek betetzen dute guk bete ezin dugun tarte hori”**

Gure familiaren kasuan, beste askoren kasuan bezala, aitxita-amamek betetzen dute guk bete ezin dugun tarte hori. Eta hau ez da lehen generazioa. Nire kasuan, adibidez, amama izan zen nire “bigarren ama”, nire amak lan egiten zuelako. Eta generazio bat beranduagoa gauzak ez dira gehiegi aldatu. Bueno, zerbait bai, orain lanordu murrizketa eskatu dezakegu. Bejondeigula! Horretarako pasa al dira 40 urte handi? Gaur egun dauden kontziliazio familiarerako aukerak lan jarduera dute ardatz nagusizat, eta bizitza familiarra ardatz honen menpe uzten dute, eta ez alderantziz.

Ezin dut imajinatu zer egingo genukeen aitxita-amamarik gabe. Guzti honetatik, halere, mezu positibo bat ateratzen dut. Aitxita-amama eta biloben artean sortutako lotura eta bizipenak, alegia, paregabeak dira eta!. Gauza bat bakarrik desio det: nire seme-alabek izan dezatela beraien aitxita-amamekin, nik nireekin izan nuen harreman berezia. Eta zuek Miren, nola daramazue uda luze hau?

ESKERTZA

**MARITXU ANDION ERRASTI**

2013ko uztailaren 6an hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiari lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UROLA

elgoibar  
biZi-biZaXal



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Konplejuak gure kaltean

Arratsaldeko 19:00etan herriko denda handi batean kaxatik pasatu ditu bertako langileak, 40 bat urteko emakumeak, nik erosi ditudanak, eta *emaidazu poltsa bat* esan diot jarraian. *Txikiye?*, berak, eta *bai, txikixa*, nik. *Zenbat da?*, nik, eta, *quinze con veinte*, berak. Nik, ondo entzun arren, *Zenbat?*, galdetu diot berriro, euskaraz erantzungo zidalakoan. Baina ez, *quinze con veinte*, berak, berriz ere.

Ondoren aurpegiz ezaguna dudan gizon ezko baten txanda da, nik dakidala euskaraz ikasten diharduena, eta *emaidazuz bi poltsa txiki*, esan dio honek. Ondoren emakumeak *grandes o pequeñas?* galdetu dio, eta *pequeñas*, erantzun gizonetakoak. Emakumeak orduan *es mejor que cojas una grande, sino se te van a romper, pues llevas mucho peso...* Eta handik aurrera gaztekeraz jarraitu dute.

A zelako begirada bota diodan, nahita, emakumeari! Bera, orduan, konturatu egin dela uste dut zer gertatu den, baina kaltea eginda zegoen.

*Sofritzen egoiten naiz  
horien erdian,  
gutaz ahalgetuta,  
nigarra begian.*

Ez al da garrantzitsua egunero-egunero euskara erabiltzea? Ala nahikoa da "...ren eguna" delako horietan bakarrik erabilia? Zergatik lotsatzen gara geurea erabiltzen? Ikasten ari denari lagundu egin beharko dugu, ezta? Ea ba, zertan dihardugun!

JKS

### Zer dute ezkutatzeko EAJK eta PSE-EEK?

Osoko Bilkurak Udalaren webgunearen bitartez zuzenean ematearen kontrako erantzunaren aurrean, hori da PPK egiten duen galdera.

PPk Osoko Bilkurak bere medioekin grabatzeko eta Udalaren webgunean jartzeko eskera egin zuen, baina Alfredo Etxeberriak ezetz erantzun du. Horren aurrean, Osoko Bilkuran PSE-EE eta Bilduren babesa lortzen saiatu da PP Osoko Bilkura batzarrean, bai-

na sozialistek ez dute saiakera hori babestu. Txarrena da EAJK eta PSE-EEK ez dutela arrazoirik eman beraien ezetza argudiatzeko. PSE-EEK ez zuen ezer esan. Horregatik, Etxeberria eta Suarez jaunek ezkutatzeko zerbait dutenaren susmoa dauka PPK.

Horrez gain, Udalaren gardentasuna sustatzeko lanean jarraituko du PPK, eta beste batzuk azaldu beharko diete herritarrei eta bereziki euren afiliatu eta bozkatzaleei, zergatik uko egiten dieten Udalaren erabateko gardentasunari. Zer daukate ezkutatzeko?

Javier Núñez

Elgoibarko Alderdi Popularrak

**Erabili ostean garbi utzi behar da Sallobenteko kanpa:**

"Eguraldi ona egiten duenean herritar asko joaten dira Sallobentera egunpasa, eta askok, hango parrillak erabiltzen dituzte, bazkaria egiteko. Erabili ostean ingurunea zaborrez beteta uzten dute askok. Lotsagarria! Parrillak eta ingurunea garbi utzi behar dira ondoren etorriko direnentzako".



**Taxi geltokia jarri arren, jendeak Maalako errotondan uzten du autoa:** "Herri honetako hainbat gidarik ez daukate besteekiko errespeturik. Taxi geltokia Maalara lekualdatu duten arren, sarririkusten dira autoak errotondan aparkatuta edo denbora tar-te baterako bigarren ilaran lagata. Gainerako gidariontzat oztopo izaten dira auto horiek, eta mesedez eskatu nahi dut Maalako errotonda libre uztea. Eskerrik asko".

**Txalo bero bat Elgoibarko Izarrari, San Fermin Txiki eguna antolatzeagatik:**

"Sekulako giro polita sortu zenuten joan zen ostiralean Elgoibarko kaleetan. Ume guztiak zuri-gorritz jantzita goizean goizetik, denak pozik eta zezenen aurreran korrika egiteko irrikitan zeuden. Ibilbidea luzeegia izan zen ume batzuentzat, baina oro har, dena primeran irten zen. Pozik ibili ziren gure umeak. Txalo bero bat eman nahi diogu Atxutxiamaikari, gure txikiekin egiten duten lanagatik".



**Kirol Udalekuak antolatzeagatik, eskerrik asko:** "Eskerrik eman nahi dizkiogu Kirol Patronatuari, Kirol Udalekuak antolatzeagatik. Aisialdiaz gozatzeaz gain, gure seme-alabek hainbat kirol ezagutu eta praktikatzeko aukera dute, eta hori oso garrantzitsua da gaztetxoen kirolerako zaletasuna sustatzeko. Primeran pasatzen dute gure seme-alabek".



# Hondakinen gaineko kuotak kalkulatzeko era aldatzeko eskatu dio Osoko Bilkurak Mankomunitateari

Elgoibarko Udalak gaikako edukiontzien aldeko apustua egiten du

Zaborren gaineko bi mozio onartu zituen Elgoibarko Udalbatzaren Osoko Bilkurak joan zen astean. Batetik, Debabarrenako Mankomunitateko kuotak kalkulatzeko era aldatzeko eskatuz mozioa aurkeztu zuen EHBilduk, eta Osoko Bilkurak onartu egin zuen, PPren aldeko botoekin eta EAJ eta PSE-EE alderdien abstentzioarekin. Bestetik, hiri hondakin solidoen udal gestiorako irizpideak ezartzen dituen mozioa aurkeztu zuten EAJK eta PSE-EEK, eta hori ere onartu egin zuten.

Jeltzaleek eta sozialistek aurkeztutako mozioaren arabera, Europak ematen dituen zuzentarauak beteko ditu Elgoibarko Udalak. Hiri hondakin solidoen gestioa ez dela egun bakar bateko lasterketa bat nabarmentzen du mozioak, eta hondakinen kudeaketan "arrakasta" izateko, zaborra gaika antolatzea nahitaezkoa dela onartu behar dute herritarrek, zaborra berrerabili eta energiaren ikuspegitik balioesteko, eta erabilgarriak ez diren hondakinak zaborte-gietan ez metatzeko. Asmo horretan, Elgoibarko Udalak gaikako edukiontzien bidezko sistemaren aldeko apustua egiten du, "optimiza daitekeen bitarteko erraza delako, herritarren premiak asetzen dituelako, eta ondo erabilia, hiri hondakin solidoak ahal den ondoen gestionatzeko nahikoa delako". Teknologiaren erabilgarritasunak, fidagarritasunak eta kostuak horretarako bide ematen duen heinean, hiri hondakin solidoak jasotzeko zerbitzuak duen kostua familia bakoitzak sortzen duenaren arabera ezarriko dela azaltzen du mozioak.

## Birziklatzeagatik onura fiskalak

Elgoibarko EHBildu ere bat dator ondo birziklatzen duenari onura fiskalak aplikatzearekin, baina, hondakinen kudeaketa-gatik Udalek ordaindu beharreko kuota kalkulatzeko era berraztertzeko eskatu dio Mankomunitateari. Lehen esan bezala, mozio hau ere onartu egin zuen Osoko Bil-



kurak.

Bosgarren edukiontzien erabilera sustatzeko, materia organikoa jasotzen den bosgarren edukiontzia erabiltzen duten herritarrei "onura fiskal esanguratsuak" ahalik eta azkarren aplikatzen hastea nahi du Elgoibarko EHBilduk. Onurak ezarri ahal izateko, baina, Mankomunitateak herrien kuotak kalkulatzeko daukan sistema aldatzea "ezinbestekoa" dela argudiatu dute.

Gaur egun herrien kuota ez da zehazten herri bakoitzak sortzen duen zaborren arabera, eta, herri baten bilketa hobeto edo gaizkiago egiteak ez du eragin zuzenik ordaintzen duen kuotan. Ondorioz, herritarrei aplikatutako hobariek nabarmen desorekatu ditzakete Udalaren diru kon-tuak. Hortaz, Bilduk aurkeztu eta osoko bilkuran onartutako mozioan jasota dagoenez, herritarrei onura fiskalak aplikatzeko ezinbesteko baldintza da udalerrriak ordaintzen dituzten kuotak, sortzen duten hondakinen kantitate eta motaren arabera kalkulatzeko. 2014 urterako herrien kuotak kalkulatzeko parametroak birformulatzea eskatu dute, modu horretan gaikako bilke-ta tasa hobekak dituzten herriak saritu ahal izateko.

## EHBilduren proposamena

Europak eta Gipuzkoak ezarritako gu-txieneko emaitzak lortze aldera, eta hon-

dakinen kudeaketa eraginkor bat ezartze-ko, hainbat egitasmo eta proposamen aurkeztu ditu Elgoibarko EHBilduk. Propo-samenak aztertzen hasi aurretik, baina, hondakinen kudeaketaren gaur egungo egoeraren erretratua egin du Jose Luis Ibartzabal Bilduko kideak, Debabarrenako mankomunitateak emandako datuak era-biliz. Herriz herriko daturik ez dagoela ze-haztu ostean, Gipuzkoako zortzi manko-munitateetako emaitza eskasena Debabarrenakoak direla nabarmendu du. Gi-puzkoan hondakinen %33,4 birziklatzen da, eta Debabarrenan, %22,7 "bakarrik", azpimarratu du.

Gaikako bilketaren bilakaerari buruz-ko datuak ere jakinarazi ditu. Ibartzaba-len esanetan, azken sei urteotako datuei erreparatuz gero, "Alfredo Etxeberria al-kate denetik" -nabarmendu du-, ez da aurrerapauso handirik eman. Aldiz, onar-tzen du eboluzio bat ikusten dela azken 16 hilabeteetan, bosgarren edukiontzia Eibarko eta Elgoibarko kale eta auzo guztietan ezarri zenetik hona, hain justu ere. Hala ere, datuak ez direla "harro egoteko modukoak" esan du, eta neu-riak hartu behar direla uste du. EHBildu-ko kideentzat behar beharrezkoa da hondakinen "kudeaketa eraginkorra" ahalbideratuko duen plangintza oroko-rra "denon artean" adostea. Informazio gehiago: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atarian.

# Osoko Bilkurak zuzenean ematearen aldeko mozioa aurkeztu du PPK, baina Udalbatzak ez du onartu

EAJk eta PSE-EEK mozioaren kontra bozkatu zuten

**H**erriarren partaidetza eta Udalaren gardentasuna sustatzeko, Osoko Bilkurak zuzenean Internetez emateko mozioa aurkeztu du Javier Nuñez PPko zinegotziak, baina Elgoibarko Udalbatzak ez du onartu. Bilduk aldeko botoa eman zion zinegotzi popularraren mozioari, baina EAJ eta PSE-EE alderdiak mozioaren kontra agertu ziren. Bittori Zabala EAJko bozeramaileak esandakoaren arabera, osoko bilkurak publikoak dira: “Edozein herritarrek eskubidea dauka, aukera dauka, plenoetara etortzeko eta zuzenean ikusi eta entzuteko. Eta, presentzialki ez bada, aktak ere publikoak dira, eta denen esku daude. Beraz, ez dugu beharrezkoa ikusten plenoak Udalaren webgunetik zuzenean ematea”. Era berean, EAJ gardentasunaren alde dagoela gaineratu du: “EAJ taldearentzat oso garrantzitsua da udal kudeaketan, herritarrekiko harremanetan eta gure zinegotzien lanean gardentasuna eskaintzea. Lehenetasuneko ikusten dugu beharrezko-



ak diren ekintzak aktibatzea eta gauzatzea. Gardentasuna kudeaketaren zorrotasunaren adierazgarria da. Hori dela eta, Eudelek bultzatutako Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen Sarean inplikatu gara. Bilkuren retransmisioak irudi bidez eskatzea interes demagogikoe-tan oinarritua dagoela uste dugu, gardentasun irizpideetan baino”.

## Gazteen Eguneko ekintzetan parte hartzeko ezinbestekoa da antolakuntzan lan egitea



Gazte Asanbladak deituta, Gazteen Eguna antolatzeko lehen bilera egin zuten hainbat gazte koadrilek joan zen domekan, eta denek bat egin zuten partaidetzan oinarrituko zela euren egitaraua, “benetako partaidetzan”. Hortaz, aurtengo jaietako Gazteen Egunean asanbladak antolatutako ekintzetan ezingo dute parte hartu antolakuntzan parte hartzen ez duten koadrilek. Hau da, Gazteen Eguneko bazkarian, erreka jaitsieran, lasterketan edo aurtengo ekintza berrietan parte hartzeko derrigorra izango da antolakuntzan parte hartzea. Egitaraua prestatzeko bigarren batzarra domekan egingo dute, 19:00etan, Gaztetxean. Norbaitek bilerara joaterik izango ez balu, beste koadrila baten bidez eman dezake izena edo [elgoibarkogazteasanblada@gmail.com](mailto:elgoibarkogazteasanblada@gmail.com) helbidera idatzita.

## Irailean hasiko dituzte Pilar ikastetxea botatzeko lanak

Elgoibarko Udalak irailean hasiko ditu Pilar ikastetxea botatzeko lanak, eta arduradunen arabera, pare bat hilabetean amaituko dituzte obrak. Foru Aldundiak zahar etxea eraiki bitartean, aparkaleku modura erabiliko dute orube hori. Legealdi honetan ikastetxea eraisteko konpromisoa hartu zuen Udalak, eta bete egingo dutela jakinarazi dute. Proiektu honek 157.290 euroko aurrekontua izango du. 2010ean hartu zuen Udalak Pilar ikastetxeko eraikineraren jabetza, gune horretan adinekoentzako egoitza eraikitzeko baldintzarekin. Proiektua egina dago, eta hasiera batean 2014rako erabiltzeko prest egongo zela uste bazuten ere, adinekoen sektorean beste lehentasun batzuk daudela esan zuen Foru Aldundiak, eta momentuz ez dago Pilarreko zahar etxea eraikitzeko data zehatzik.



## Erretratu zaharra



**1972**

1972ko erretratu zahar hau Sigman aterata dago, auzoko jaietan. Santiago Egunaren bueltan ospatzen zituzten jaiak, baina urteak aurrera joan ahala, galdu egin ziren jai horiek. Gaur egun, pilota txapelketa soilik mantentzen dute egitarauan, eta finala beti Santiago Egunean jokatzen da, uztailaren 25ean. Sigmako jaietan giro oso ona egoten zela azaldu dute auzotarrek, eta aurten, Sigmako eskolaren 50. urteurrenaren harira, modu berezian ospatuko dute Santiago Eguna. **Joseba, Roberto eta Edurne Panizo** anai-arrebak dira argazkian azaltzen direnak.



**TXIKI EGUNERAKO  
KAMISETAK SALGAI!**

Elgoibarko Izarraren bulegoan

**Umeen kamisetak 5€tan!!!**

**10€ tan**  
(Bazkideek 9€ tan)

 **ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA



*Skainean...*

## JAIOTAKOAK

**Inar Alvarez Larruskain**  
Ekainak 4  
Aian eta Nerea

**Laida Ramirez Suinaga**  
Ekainak 7  
Gorka eta Ainhoa

**Izar Estevez Peñagarikano**  
Ekainak 14  
Alazne eta Jabier

**Markel Mujika Agirregomezkorta**  
Ekainak 13  
Asier eta Ane

**Eider eta Laia Etxeberria-Arteun Castillo**  
Ekainak 19  
Aitor eta Ainhoa

**Aiur Lopez de Sabando Ballesteros**  
Ekainak 23  
Ion eta Concepcion

**Kalare Balsera Merino**  
Ekainak 26  
Antonio eta Alicia

## HILDAKOAK

**Gregorio Esnaola Larreategi** • 87 urte • Ekainak 16

**Kontxi Zelaia Etxaniz** • 87 urte • Ekainak 28

**Ines Gonzalez Roldan** • 89 urte • Ekainak 28

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

T A N A T O R I O A



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan  
zerbitzuak**

**Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR**  
**Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27**  
**(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56**  
**(Sakelekoa) 635 756 295**

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik Elgoibarko Izarrako bazkideek **3 euro** ordaindu behar dute eta gainontzekoek **4 euro**.

# ‘Gaztemapping’: gazteen aisialdi ohiturak ikertzeko egitasmoa

Hamabost gaztek beste hogei gazteren aisialdi ohiturak ikertuko dituzte

**G**azteak lokaletan sartuta bizi direla eta oso pasibak direla entzun izan dugu sarri. Baina, baieztape hori benetan hala al da? Gazteen aisialdi ohiturez kezkatuta agertu da Udaleko Gazteria Saila, eta haietzako gune egokiak identifikatzeko asmoz, Elgoibarko gazteen aisialdi ohiturak ikertuko ditu. Horretarako, *Gaztemapping* egitasmoa sortu dute, Manahmana enpresarekin elkarlanean. Aitor Guisasola Manahmanako kidearekin hitz egin du **BARRENEK**.



30 bat gaztek hartu dute parte lehenengo tailerlean.

**G**erturatu eta ikertu. Horixe da Manahmana enpresak Elgoibarko gazteei proposatu nahi diena *Gaztemapping* egitasmoan. 13 eta 30 urte bitarteko gazteen interakzioa sustatuz, Elgoibarko aisialdia aberastu nahi dute. Gazteek gazteentzako egindako proiektua da, eta gazteak izango dira protagonistak; ikertzaileak eta ikertuak, hain zuzen ere. Ikerketa-ekintza proposamen honetan hamabost gazte ikerketailek beraien inguruko beste hogeitazaz gazteren ohiturak ikertuko dituzte. Elgoibarko balibideen erabilera, gazteen partaidetza, beharrak eta interesak izango dira aztergaiak, besteak beste.

Azkenaldian gazteentzako lokalak ugartu egin dira, eta kalean baino ordu gehiago ematen dituzte gazteek lokalean. Jende askok uste du lokalak kaltegarriak direla, baina Aitor Guisasola Manahmanako teknikariaren ustez, ez dakigu lokal horietan zer dagoen. “Ezjakintasun handia dago gazteen aisialdiaren inguruan”, esan du. Ikerketa honi esker,

gazteen ohiturak ezagutuko dituzte.

Ikerketa kualitatiboa egingo dute, eta, diagnosia amaitu ostean ateratako ondorioek gazteria politika berriak diseinatzeko edo gazteentzako ekintza egokiak antolatzeke balioko dute. Azken batean, *Gaztemapping* egitasmoaren bidez gazteak motibatu eta aktibatu nahi dituzte. Horrez gain, Udala gazteengana gerturatzeko ere balioko du, eta elkarlanean aukera berriak aztertu ahal izango dituzte, Elgoibarko aisialdi eskaintza aberasteko.

## Metodologia

Behaketa zuzena egingo dute gazteek, hau da, kaleko ikerketa. Gazte batek, aste-bete inguruko epean, bere inguruko beste gazte baten ohiturak ikertuko ditu. Horretarako, oraindik erabat lotuta ez badute ere, koadernoak, bete beharreko fitxa eta kamera erabiliko dituzte. Horrez gain, komunikabideek gazteei buruz esandakoak aztertu eta Internet bidezko galdeketa ere egingo

dituzte, gazteek euren ohiturei buruzko informazioa eman dezaten.

Ikerketa hau ondo irten bada, gazteen partehartzeatik izango da. Ezinbestekoa da gazteen partaidetza, bai ikertzeko eta baita ikertuak izateko ere. Horretarako, bi tailer prestatu dituzte uztaileko. Atzo egin zuten lehenengoak, eta datorren ostegunean egingo dute bigarrena. Udaleko Pertsonen Batzordearekin eta gazteekin proiektua diseinatu eta lan sistema zehaztuko dute. Irailean bi formazio saio egingo dituzte gazteak ikerketarako prestatzeko, eta ikerketa bera, urrian hasiko dute. 13 eta 30 urte arteko edonork har dezake parte, eta Manahmanatik elgoibartar guztiak gonbidatu nahi dituzte. Interesatuak datorren ostegunean agertu daitezke, 10:00etan, Kultur Etxean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Gazteria Sailarekin jarri daiteke harremanetan, 943 531 319 telefonoan edo [gazteria@elgoibar.net](mailto:gazteria@elgoibar.net) helbidera idatzita.

# PATXI GARCIA

MENSA ESPAÑA SUPERGAIUEN ERAKUNDEKO LEHENDAKARIORDEA



**“Ondo erabilitako adimena bikaina izan daiteke, gaizki erabilitakoa, aldiz, hondamendia”**

Patxi Garcia (Elgoibar, 1962) izango da aurrerantzean Mensa supergaituen erakundeko lehendakariordea. Adimen maila altuko pertsonak batzen dituen nazioarteko elkarte handiena da Mensa, eta bere helburua pertsonen adimen maila identifikatu eta sustatzea da, beti ere, giza garapenaren mesederako eta ikerketarako. 1946an sortu zuten elkarte Ingalaterran, eta zibilizazio, filosofia, kultura eta herrialde desberdinetako bazkideak ditu. Gaur egun, 110.000 bazkide inguru ditu, munduko bost kontinenteetan. Espainiako Mensa 1984an sortu zuten eta 1.500dik gora bazkide dauzka, eta Euskal Herrian, 120 inguru dira Mensako kide. Stephen Hawking eta Isaac Asimov zientzialariak, Quentin Tarantino zine zuzendaria edota Jean Auel idazlea ere Mensako kide dira.

“Orain arte oso jende gutxik zekien Mensako kide nintzela, eta egia esateko, askoz erosoago sentitzen nintzen anonimotasunean”

**Mensa España elkarteko lehendakariorde izendatu zaituzte. Zer sentitu duzu?**

Ohore bat izan da niretzat, baina, aldi berean, ardura handia eskatuko didala uste dut, elkarteko bazkideak oso exijenteak direlako. Norbaitek esan zuen behin katu talde bateko artzaina izatea bezalakoa zela Mensa zuzentzea!

**Zein izango da zure lana aurrerantzean?**

Besteak beste, ondorengo zereginak eman dizkirate: Marketing Sailaren Zuzendaritza, Komunikabideekin harremanak lantzea, elkarte barruko aldizkariaren zuzendaritza eta baita enpresa munduarekin harremanak egitea ere, MensaEmpresa proiektuaren bitartez. Etekin asmorik gabeko lantaldeek, laguntza eskatzen duten enpresekin jardungo dute elkarlanean, mahainguruak edo *brainstorming* modukoak antolatzeko, besteak beste. Zenbait Parke Zientifiko eta Teknologikoekin sinatu ditugu akordioak dagoeneko.

**Mensako kide izateko ezinbestekoa da supergaitua izatea?**

Bai, horixe da elkarteko bazkide izateko bete behar den baldintza bakarra. Akreditatutako adimen proba batean biztanleen %98a baino maila hobea eman behar da. Portzentaje hori adimena neurtzeko erabiltzen diren eskaletara ekarrita, Wechsler testean 131 puntu lortzea

edo Cattell azterketan 149 puntutik gorako emaitza ematea izango litzateke. Bestela, baina, denetarikoa jendea dugu elkartean. Gipuzkoan, esate baterako, lanbide guztietako jendea dago: musikariak, arkitektoak, publizistak, informatikariak, galdaragileak, anbulantzia gidariak, kimikariak... Oro har, gehiago dira lanbide zientifiko-tekniko alorrekoak, baina Mensako kideen artean denetarikoa pertsonak aurki daitezke. Hori bai, denok gara kuriosoak eta oso umore onekoak. Elkartzen garenean oso giro ona izaten dugu gure artean.

**Orain dela hamar urte sartu zinen Mensa elkartean, baina oso jende gutxik zekien hori. Zergatik?**

Gure inguruan pertsona barnerakoiak gara, eta egia esanda, oso zaila da supergaitua zarela esatea, harrokeria kutsua eman gabe. Mundu Anglosaxoian, aldiz, Estatu Batuetan edo Britainia Handian prestigio handia dauka elkarteak, eta hemen baino mediatikoagoa da. *The Simpson's* telesailan ere kapitulu bat eskaini zioten gai honi, Lisa gaztea Mensako kide egin zutenean. Hemen guztiz kontrakoa gertatzen da, eta gehienek ez dute esaten.

**Zure egoera publiko egiteko unea iritsi zaizu. Nola sentitu zara?**

Hamar urtez isilean izan dut, oso jende gutxik zekien Mensako kide nintzela, eta egia esanda, askoz erosoago nengoen anonimotasunean.



Stephen Hawking zientzialaria ere Mensako kide da. Goiko irudian, Hawking-en argizarizko irudiarekin ageri da Patxi Garcia.

## **12 urte zenituela konturatu ziren eskolan gainontzekoak baino adimen altuagoa zeneukala. Nola hartu zenuten jakinarazpen hori?**

Garai hartan jarrera ona izatea eta nota onak ateratzea hartzen zuten kontuan bereziki, eskolan, eta adimenaren kontu horri ez genion aparteko garrantziarik eman. Askoz beranduago baieztatu zidaten adimen koefiziente altua nuela. Gaur egun lan egiten dudan enpresako azterketa batean izan zen. Gure enpresan Talentu-Kudeaketa Saila daukagu, eta bakoitzaren jardunbidearen ebaluazioa egin zutenean esan zidaten Mensa elkartean sartzeko aukera neukala.

## **Zein ezaugarri erakusten ditu ume supergaitu batek?**

Ume supergaituek ikasteko interes handia erakusten dute. Sormen handia daukate, eta arrazoitzeko ahalmen handia. Europar Kontseiluak gomendio hau eman zuen 1994an: *“Ume supergaituei euren gaitasunak erabat garatu ahal izateko baldintzak eskaini behar dizkie hezkuntzak, bai beraien garapenerako, baina, oro har, gizartearen hobeperako. Herrialdeek ezin dituzte talentu horiek alferrik galtzen utzi, eta giza baliabideak alferrik galduko lirakeke pontentzialtasun intelektual horiek garaiz identifikatzen ez badira. Horretarako erreminta ego-kiak izatea ezinbestekoa da”*. Gaur egun oraindik helburu hori lortzeko urrun gaude.

## **Ume supergaituek gainerakoek baino adimen maila altuagoa dute, baina hala ere, sektore horretan eskola porrota asko ematen da. Zer dela-eta?**

Diagnostiko faltak, eta ondoren eman beharreko pausoen zehaztapen faltak, aspertzea, desmotibazioa eta kasu batzuetan bazterketa ere ekartzen ditu, eta horren ondorioa eskola porrota izan daiteke. Dena den, egoera hau ez da uste dugun beste gertatzen, baina ematen denean zeresan handia ematen du, itxurazko kontraesan horregatik.

## **Nola diagnostikatzen dira pertsona supergaituak?**

Psikologo profesionalek egiten dituzten azterketen bidez diagnostikatzen dira normalean. Mensa elkartearen webgunean doako test bat dago, norberak bere adimen maila neurtu ahal izateko. Zortzi minutuan egin daiteke eta zure aukeren nolabaiteko informazioa ematen dizu. Emaitza ona lortuz gero, zaintzapeko test bat egiteko txanda eskatu daiteke, eta gaindituz gero, elkartean sartzeko aukera dago.

## **Supergaitua zarela esaten diezunean, nolako jokabideak erakusten ditu jendeak?**

Normalean ez dut kontaktzen. Ondo ezagutzen zaituen bati esatean ez da arazorik sortzen, baina konfiantza gutxiko lagun bati esatean, nahigabe ere, seguru distantziak sortzen direla.

## **Arazorik izan duzu zure bizitzan supergaitua izateagatik?**

Bizitzako gainerako nolakotasun guztiak bezala, hobe da edukitzea ez edukitzea baino, baina adimen koefiziente altua izateak ez du ezer bermatzen. Ondo erabilitako adimena, bikaina izan daiteke, aldiz, gaizki erabilitakoa, hondamendia.

## **Zein dira supergaitua izatearen alde onak eta txarrak?**

Nolakotasun honek zertan lagundu didan neurtzea zaila da. Nire ustez, bizitzako edozein alorretan arrakasta izateko, gaitasun eta jarraz gain, suertea ere eduki behar da. Errekonozituta dauden adimen mota asko daude gaur egun: adimen musikala, logikoa, espaziala... Baina nik uste dut, adimen emozionala estimatzen dela gehien alor guztietan. Hau da, arazoak gainditzeko eta besteen lekuan jartzeko gaitasuna ematen duen adimena.

# Elgoibarren ere, gora San Fermin!

iruñean baino lehenago hasi zituzten sanfermin jaiak Elgoibarko txikienek. Atxutxiamaiak antolatuta, San Fermin Txiki eguna ospatu zuten joan zen barixakuan, eta etxeko txikienek gogotik egin zuten korrika herriko kaleetan zehar. Kalegoen plazan irakurri zuten pregoia San Fermini babesa eskatzeko, eta ondoren, entzierroa korritu zuten. Zezen beltzen aurretik, ziztu bizian zeharkatu zituzten San Bartolome eta Errosario kaleak. Atxutxiamaiak gaudetegiko zezenek entzierro azkarra eta garbia eskaini zuten. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: [www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)



# Datorren barixakuan amaituko da Elgoibarko Izarraren Txiki Eguneko bazkarirako izena emateko epea

Aurten, Txiki Egunerako kamisetak jarri dituzte salgai

**A**zken urteetako ohiturari jarraituz, Elgoibarko Izarra kultur elkarteak Txiki Egunerako bazkaria antolatu du aurten ere, eta datorren barixakuan bukatuko da izena emateko epea. Izena emateko bi aukera daude: Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan lokalean bertan eman daiteke izena, edo, bestela, Internetez, [www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com) helbidean. Elkarteko bazkideek 17 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek, 19 euro. Pasta entsalada, okela gisatua, gazta-tarta, ogia, ura, ardo beltza, sagardoa eta kafea eskainiko dituzte menuan. Begetarianoa denak izena ematera-ko orduan zehaztu beharko du, eta menua moldatzeko aukera egongo da. Bazkaria Sigmako aparkalekuan izango da, Mauxitxa Txarangaren kalejira amaitu ostean.

## Kamisetak salgai

Berrikuntza modura Txiki Egunerako kamisetak jarri dituzte salgai aurten. Nagusientzat zein umeentzako kamisetak egongo dira aukeran. Elgoibarko Izarrako bazkideek 9 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 10 euro. Umeen kamisetak 5 euroan jarri



dituzte salgai. Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan lokalean erosi daitezke. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 741 626 telefonora deitu daiteke.

## Abuztuaren 4an ospatuko dute Santumotz Eguna Idotorbe auzoan

40 urteko etenaldiaren ostean, orain dela zazpi urte berreskuratu zuten Santumotz Eguna Idotorben, eta aurten ere, prestatu dute auzotarrek egun horretarako egitaraua. Abuztuaren 4an izango da Santumotz Eguna, lehenengo usadioari eutsiz, abuztuko lehenengo igandean, hain zuzen ere. Aubixatik Kalamuara bidean dagoen lautada batean dago Santumotz santua, eta hantxe egiten dituzte ospakizunak. 11:00etan meza egongo da, eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte. Jarraian, Ziarda eta Narbaiza bertsolarien txanda izango da. Goizean zehar Lidia eta Xabier trikitilariak jarriko dute musika giroa. Eguerdian lagunarteko bazkaria egingo dute, eta izena emateko, ondorengo telefonora deitu behar da: 616 524 106. Bertso saioa egongo da bazkal ondorenean, eta iluntzera arte, erromeria.

## Piropo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak

Esukarazko piropo lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak, bigarren urtez, eta interesatuek, uztaillaren 19ra arteko epea dute piropoak aurkezteko. Piropo orijinalak eta ez-sexistak izan behar dira parte hartu ahal izateko. Liburutegian edo herriko tabernetan entregatu daitezke piropoak. Irabazleak 50 euroko saria jasoko du.

## Santana jaietako danborradako entseguak

Mendaroko Santana jaietako danborradarako entseguak uztaileko astelehenetan egingo dituzte, Ikastolan, 21:00etatik aurrera. Danborrada uztaillaren 25ean izango da. Umeen danborradako entseguak, bestalde, hilaren 18an eta 23an izango dira, 19:30ean.

## Zahartzaroari omenaldia Mendaron, uztaillaren 28an

Santana jaien barruan, zahartzaroari omenaldia egingo diote uztaillaren 28an, Mendaron. 70 urteik gorakoentzako bazkaria antolatu dute Aizpe elkarteak. Bikoteen kasuan, bietako batek 70 urte eginak baditu, biak joan daitezke bazkaritara. Izena emateko azken eguna uztaillaren 15a izango da. Interesatuek Aizpe elkarteak, Lagun Betikoak egoitza, Kutxan edo Rotetan eman dezakete izena. Udaletik jakinarazi duteenez, txu-txu trenea egongo da aurten ere Aizpe elkartera joateko.

# IMANOL URAIN

Sukaldaria

**Txarriduna tabernako Imanol Urain sukaldariak neurria hartua dio Elgoibarko Pintxo Lehiaketari. Orain arte jokatutako diren bost edizioetatik hirutan irabazi du epaimahaiaren saria.**

**“Pintxo onak egiteko irudimen pixka bat eta eskarmentua behar dira”**

**Hirugarrenoz irabazi duzu Elgoibarko pintxo lehiaketa. Zein da pintxo onak egiteko sekretua?**


Ez dut uste sekreturik dagoenik, irudimen pixka bat eta eskarmentua baizik. Sukaldaria naiz eta urte askoan egin dut lan sukaldari oso onen ondoan. Urteetan pilatu dudana esperientziarekin eta beste sukaldariengandik ikasi dudanarekin, osagai ezberdinak behar bezala nahasteko gai naiz. Horixe da dena. Hala eta guztiz ere, badut arantza bat: Orain arte jaso ditudan hiru sariak epaimahiak emandakoak izan dira, baina ez dut jaso herritarren saririk. Ez dakit zein den arrazoia, baina ematen dit zer pentsatua. Sari hori irabaztea gustatuko litzaidake, eta horretan saiatuko naiz hurrengoetan.

**Epaimahaikideen iritziz, pintxo originala, dotorea eta goxoa aurkeztu zenuten aurten.**

Aurtengo pintxo bertikalean osatu genuen. Aurkeztu ziren gainerako pintxoak, katalogoan ikusi ahal izan nuen, horizontalean eraikitak zeuden. Horrek berezitasun bat ematen zion gureari eta inpresio ona eragin zion jendeari. Izan ere, jakina da begietatik hasten garela jaten.

**Zenbat denbora eskaintzen diozu pintxo lehiaketa prestatzeari?**

Bi hilabete lehenago hasten naiz buruari bueltak ematen, eta sukaldariari proposatzen diet nire ideia. Aurten, txahal masailarekin egitea erabaki nuen eta errege sagarra gaineratu nion, pintxoari freskotasun ukietua emateko. Hasierako ideiatik azkenean aurkeztu genuen pintxora arte, baina, bilakaera handia egon zen, sukaldariak eginiko ekarri handiari esker, besteak beste. Sei edo zazpi bat pintxo egingo genituen konforme geratu arte. Talde lanean eginiko I+D lana izan da. Aurreko edizioetan ere geneukan onena eman genuen arren, aurten mimo bereziarekin prestatu dugu pintxo. Inoiz baino parte hartzaile gehiago egoteak {25 pintxok hartu dute parte aurten} horretara bultzatu gaitu,



gauzak ahal dugun ondoen egitera eta lehiakorrak izatera, alegia. Seriotasunez hartu dugu lehiaketa.

**Beti ez duzu asmatu, baina?**

Ez. Urte batean ahukatea zuen pintxo bat egin nuen, baina espezie bat gaineratzerakoan eskua joan zitzaidan eta barregarri geratu nintzen. Bezeroei ez zitzaion batere gustatu. Burua joan zitzaidala esan zidan batek baino gehiagok. Gauza bat ikasi nuen: pintxo berriak eskaini behar dira, goxoak, baina betiere tradizionalak.

**Zer izan da zailena?**

Goxoa egoteaz gainera, egiteko erosoia izan behar du pintxoak, egiten den lehenengo pintxoaren zapore eta itxura antzerakoa izan dezaten pintxo guztiak. 1.800 pintxo egin genituen lau egunetan! Oreak hori bilatzea da zailena eta kezka gehien eman diguna.

**Eta, gainera, 1,10 euroko kostua izan behar du pintxo bakoitzak. Kaviarrarekin, beraz, ezin egin pintxorik?**

Pintxo hauek eginez dirua irabaztea nahi duena oker dabilela uste dut. Prezio horrekin ez dut etekinik ateratzen, pintxoarekin batera saltzen dudanarekin baizik.

**Bost edizioen ostean, zer balorazio egiten duzu pintxo lehiaketaz?**

Oso positiboa. Gainera lehiakortasuna handitzen ari dela sumatu dut eta garrantzitsua iruditzen zait. Pintxo hobek egitera bultzatzen gaitu lehia horrek. Era berean, herrian sortzen den giroa ere paregabea da. Oso ondo erantzun du jendeak. Aurten, 25 tabernak parte hartzen genuela-eta, jende gutxiago ibiliko zen beldur nintzen, bezeroek taberna konkretu batzuetara joatea erabaki beharke zutela-eta. Oker nengoen, tabernari guztiak pozik daude izan duten bezero kopuruekin eta halaxe erakusten dute jakinarazi dituzten datuek ere.



## Unai Oñederrak irabazi du Espainiako Kopa txapelketa, helize tiroan

Usa eta plater tiro arteko modalitatea da helize tiroa

**H**elize tiroko Espainiako Kopa txapelketa jokatu zen ekainaren amaieran Chesten (Valentzia), eta aurreikuspen guztiak hautsiz, Unai Oñederra elgoibartarra izan zen onena. Valentziarrei titulua kentzeak "meritu handia" duela dio Oñederrak berak. Izan ere, Chesteko tiro zelaia muino batean eraikita dago eta ingurune hai-zetsuan gainera. Hori dela-eta "Espainiako tiro zelai zailena" dela dio ehiztari elgoibartarrak, haizearen eraginez helizeak abiadura handiagoa hartzen duelako. Plater tiroa eta usa tiroaren arteko modalitate bat dela esan daite-



ke helize tiroa. Usa tiroa galarazita dago European, Espainian eta Andorran izan ezik, eta ondorioz, helize tiroa da nagusi ia Europa osoan.

## Concepto Egile areto futbol taldea hasi da datorren denboraldia prestatzeko lanetan



Concepto Egile taldeak Bigarren Mailara igotzeari uko egin behar izan zion, klubak ezin ziolako ekonomikoki erronka horri aurre egin. Hortaz, Bigarren B mailan jokatu du taldeak berriz ere, eta dagoeneko hasi dira datorren urteko denboraldia prestatzen. Zuzendaritzak lan handia egin beharko du, izan ere, jokalarri garrantzitsuen baja izan du Concepto Egilek. David Garrido eta Xabi Perezek areto futbola uzteko unea iritsi zaiela jakinarazi dute, eta Joseba Balerdi eta Unai Labakak

taldea utzi behar izan dute, ikasketa eta lan kontuegatik. Arazo ekonomikoak medio, bestalde, Fher eta Koldo jokalarriak ezin izan dituzte taldean mantendu, eta Buitrek lehenengo mailako talde batean jokatu du datorren denboraldian.

Hala ere, jokalarri batzuk datorren urtean jarraituko dutela jakinarazi dute: Ekaitz Insausti eta Iker Oñederra atezainak, Alex Alonso, Ivan Quintin, Michael Vidal eta Raul Nieto.

Horiekin, baina, ez da nahikoa eta fitxaketa berriak egiten hasi da zuzendaritza. BARRENEK aurreratu zuen moduan, Jota Arregi izango da taldeko entrenatzailea datorren denboraldian, eta jokalarri berriak ere izango dira. Horietakoa bat, Mikel Treviño arabarra izango da. 3. mailako Aurrera taldean egin ditu azken bi denboraldiak, eta aurten bigarren egin dute ligan. Aurrez, Nazional A mailako Legutio eta Aretxabaleta taldeetan ibilitakoa da.

Jose Ramon Iriarte taldeko presidentek jakinarazi du hau izan dela lehenengo fitxaketa, baina gehiago egingo dituztela.

## Futbol 7 Txapelketako finala uztailearen 18an jokatu da

Debabarreneko Futbol 7 Txapelketa iritsi da amaierara. Aste honetan jokatu dituzte final laurdenak, eta datorren astean bukatuko da txapelketa. Uztailearen 16an jokatu dituzte finalaurrekoak Mintxetan, eta final nagusia hilaren 18an izango da, Mintxetan baita ere. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida 19:00etan hasiko da, eta finala, 20:00etan izango da.

## Bihar bukatuko da kirol argazkien lehiaketan parte hartzeko epea

Udaleko Gazteria Sailak eta Kirol Patronatuak, Ongarriren laguntzarekin antolatutako kirol argazkien lehiaketan parte hartzeko epea bihar bukatuko da. Partaide bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta kiroldegian entregatu beharko ditu. Antolatzaileek lau sari banatuko dituzte: Herritarrentzako saria (200 euro), 13-17 urte bitarteko nerabeentzako saria (lehenengoa 150 eurokoa eta bigarrena 100 eurokoa), 18-35 urte bitarteko gazteentzako saria (lehenengoa 300 eurokoa eta bigarrena 200 eurokoa), eta 35 urtetik gorakoentzako saria (lehenengoa 300 eurokoa eta bigarrena, 200 eurokoa). Sari banaketa abuztuaren 22an egingo dute eta saria jasotzeko ezinbestekoa da argazkilaria bera edo ordezkariaren bat Kultur Etxean agertzea.

## Imanol Garaizabalek bigarren egin du Oñatiko raidean

Irabazleek baino puntu bat gutxiagorekin, Imanol Garaizabal elgoibartarrak bigarren egin du Oñatiko orientazio raid proban, Aaron Garmendiarekin bikote eginez. Bi trekking atal, beste bi btt saio, eskalada proba bat, espeleologia eta rappel proba bat gainditu behar izan zituzten partaideek, eta Garaizabalek eta Garmendiak 6 ordu eta 59 minututan amaitu zuten eginbeharrekoa. Gure ordezkarien artean, Jabi Guallar eta Iñigo Araujok osatutako bikoteak ere hartu zuen parte.

## Iñigo Larizek eta Maite Maiorak irabazi dute Collaradako kilometro bertikal bikoitza

Mendiko istripuan hil berri den Carlos Imirizaldu mendizaleari eskaini diote garaipena

**C**ollaradako kilometro bertikal bikoitza (2KV Collarada) jokatu zen domekan, Villanuan (Huesca), eta gizonezkoetan zein emakumezkoetan, gure ordezkariak izan dira onenak: Iñigo Lariz eta Maite Maiora, hain zuzen ere. Hamasei kilometroko ibilbidean 2.000 metro igo behar zituzten parte hartzaileek, hau da, bi kilometro bertikal egin behar zituzten proba berean. Probako errekorra duen Habid Bouali marokoarrak erritmo bizia ezarri zuen irteratik, baina lehen igoera amaitzeaz zela, proba bertan behera laga zuen. Une horretan aurrera egitea erabaki zuen Iñigo Lariz elgoibartarrak, eta lehen postuan iritsi zen 2.886 metrotan dagoen Collaradako gainera. Jaitsieran ere lasterketa buruari eutsi zion elgoibartarrak, eta bera izan zen helmugaratzen lehenengoa, bi ordu eta 24 minutuko denborarekin. Errekorretik zazpi minutura geratu zen Lariz. Emakumezkoetan Maite Maiorak ez zuen aurkaririk eduki, eta gizonezkoekin ibili zen lehian. Sailkapen nagusiko bosgarren postuan sartu zen helmugan mendararra, Larizengandik hamar minu-



tura. Bi ordu eta 34 minutuan osatu zuen ibilbidea Maiorak. Batak zein besteak laguna zuten mendi istripuan hil berri den Carlos Imirizaldu *Carolo*, eta hari eskaini dizkiote garaipenak.

## Euskadiko Triatloi Txapelketa irabazi du Iñaki Kondek, distantzia ertainean



Duela bi aste distantzia olinpikoko Euskadiko txapelketa irabazi ostean, Distantzia Ertaineko Euskadiko Triatloi Txapelketa irabazi du Iñaki Kondek beteranoetan, Garaiko triatloia irabazita. Bi kilometro igerian, 90 km. bizikletan eta 21 km. korrika egin behar izan zituzten partaideek, eta Kondek, 6:06:23 denboran egin zuen bere lana.

Garaipena eta proba bera "oso bereziak" izan direla aitortu du txapeldunak. Proba jokatu baino egun bat lehenago min hartu zuen eskumuturrean, eta parte hartzeko zailtza handiak izan zituen. Ikasbidaian Maltara elkarrekin joan ziren ikasleei lasterketa eskainiko ziela agindu zenez, parte hartzea erabaki zuen. Igeriketako proba amaitu ostean, baina, bizikleta gainean ibili ahal izateko eskumuturra estutzeko bendaje bat behar zuen, "nahi eta nahi ez". Kondek azaldu duenez, araudiak ez du uzten antolakuntzatik kanpo dagoen inoren laguntzarik jasotzea, baina antolatzailak eta Gurutze Gorriko ki-deak lanpetuta zeudenez, Arkaitz Irureta elgoibartarraren laguntza jasotzeko eskaria egin zien epaileei. Baiezkoa jaso ostean, "mesede izugarria" egin zion bendajea jarri zion lurretak Konderi, eta adierazi duenez, hari esker egin ahal izan zituen bizikleta gaineko 90 kilometroak. Gure ordezkarien artean, Ibon Serranok 5:33:27 denboran egin zuen proba, eta emakumezkoetan, Arantzazu Perez de Arenazak bigarren egin zuen.

### Ehunmilak lasterketari ongi-etorria gaur gauean, Azkaraten

Gaur hasi eta domekara bitartean jokatu da aurtengo Ehunmilak mendi proba. Beasainen izango da irteera 18:00etan, eta gauerdia inguruan iritsiko dira Azkarate gainera. Elgoibarko mendizale talde batek korrikalariengoi-etorria egiteko ekitaldia antolatu du. 22:00etatik aurrera, Azkarate inguruan batuko dira. Probak 168 kilometro ditu guztira. Gure ordezkarien artean, Edu Uribe parte hartuko du.

# Jonathan Taborcia ondarroarrak irabazi du 40-15 tenis txapelketa nagusietan

Bi set behar izan zituen ondarroarrak, Markel Aranberri debarra mendean hartzeko

**J**onathan Taborcia ondarroarrak eta Markel Aranberri debarrak jokatu zuten 40-15 tenis txapelketako finala domekan, eta partida lehiatu baten ostean, Taborciak irabazi zuen. Antolatzailleek esandakoaren arabera, maila bikaina erakutsi zuten bi tenis jokalariek, eta Mintxetako tenis pistara hurbildu ziren ikusleek partida bikainaz gozatu zuten. Bi set behar izan zituen Taborciak partida irabazteko, eta 6-3 / 6-2 izan zen azken emaitza. Jokalari ondarroarrak tenis txapelketa profesionaletan parte hartu izan du eta tenis irakasle moduan lan egiten du hainbat tenis elkartetan.

Gaztetxoan mailletako finalak ere jokatu zituzten domekan, Mintxetan. Hala, jubeniil mailako finalean Koldo Lopez eibartarrak lortu zuen garaipena; infantiletan, Paul Esteban elgoibartarrak irabazi zuen, eta alebin mailako finalean Debako Jon Gandiaga nagusitu zen.



## Debako Itsasmila igeri proban hartu zuten parte hainbat elgoibartarrek



Debako Itsasmila proba jokatu zuten zapatuan Debako hondartzan. 202 igerilari hartu zuten parte guztira, eta horien artean, baziren elgoibartarrak ere. Itsaso zakarra zegoen, eta olatu handiak gainditu behar izan zituzten proban zehar. 1.852 metroko distantzia zeukan probak. Hauek dira elgoibartarren denborak:

45. Iñaki Iglesias (26:43)

51. Julen Hernandez (27:00)

56. Humberto Fernandez (27:07)

58. Eneko Etxaniz (27:26)

63. David Soto (28:01)

69. Xabier Gil (28:12)

82. Miguel Arozena (29:08)

91. Ion Errasti (29:56)

101. Iban Gurrutxaga (30:21)

111. Elisabet Gurrutxaga (30:52)

150. Iosu Iriondo (33:58)

188. Aitor Dorado (39:29)

189. Naomi Revert (39:32)

## Giza proben Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute bihar Mendaron

Giza proben Gipuzkoako txapelketako bigarren kanporaketa jokatuko dute bihar, Mendaron. Orio, Berrobi, Deba eta Mendaroko taldeek hartuko dute parte, eta biharko saiotik irtengo dira finalerako bi sailkatuak. Lehenengo jardunaldia Oriok irabazi zuen 47 plazarekin. Debakok 44 plaza egin zituzten, Berrobikok, 43, eta mendarok 39. Biharko ekinaldian gainera, harri astunagoa mugitu beharko dute partaideek: lehenengoan 800 kiloko harriarekin egin bazuten lan, bihar 950 kilokoa izango dute. 18:00etan hasiko da ikuskizuna, Garagartza eliza aurrean.



**LANA**.....  
*Eskatera*

- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, etxean zein ospitalean. Autoa daukat. Berehala hasteko prest. ☎ 600 005 160
- Emakume arduratsuak umeak edo nagusiak zainduko lituzke. Orduka edo interna. Berehala hasteko moduan. ☎ 625 895 460
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko, edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. Esperientzia. Orduka edo interna. ☎ 616 457 254
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ 627 768 684
- Neska euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua daukat. ☎ 619 511 789
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 649 086 057
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Egun erdiz. Asteburuetan lan egiteko prest. ☎ 680 121 252
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ 632 054 894
- Emakumea lan bila: Hoteleko zerbitzari lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen edo garbiketarako eginez egingo luke lan. ☎ 608 474 923
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo zerbitzari lanetarako. ☎ 637 170 781
- Ingeles eskolak ematen ditu, etxez-etxe. ☎ 680 319 002 / 943 744 062

- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari lanetarako edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 678 858 210
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari lanetarako edo garbiketa lanetarako prest. Esperientzia handia. ☎ 675 765 376
- Eskola partikularrak ematen dira uztailean. Matematika, kontabilitatea, ekonomia... DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketa mailetan. ☎ 666 042 710
- Mutil gaztea udan txakurrak paseatzeko prest. ☎ 634 134 562
- Mutil gaztea lanerako prest. Nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo banatzaile lanetarako edo iturgintzarako eta erreformetarako prest. ☎ 682 518 370

*Eskatera*

- Emakume euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 680 236 382
- Partikularrak emateko pertsona euskalduna behar dugu Mendaron, DBH1eko ikasle batentzako. DBH4ko ikasle bati ingeles eskolak emateko pertsona ere behar da. ☎ 695 730 442

**ETXEBIZITZAK**.....

- Etxea alokatzen dut Errosario kalean. 88m2. 3 logela, egongela, sukaldia komuna. Altzariekin, berritua. ☎ 647 438 640
- Conil: Etxebizitza alokatzen dut, asteka edo hamabostaldika. ☎ 600 596 538
- Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Ez daukagu umerik. ☎ 600 621 605

- Benidorm: etxea alokairuan, hondartzatik hasita, bigarren ilaran. Aire egokitua eta igerilekuarekin. ☎ 943 740 628 / 650 557 077
- Bi lagunentzako logela edo pisua hartuko genuke alokairuan. ☎ 688 467 147

**GARAJEAK**.....

- Garaje irekia salgai Debako hondartzan. ☎ 649 275 707
- Garajea salgai Lekuederren. 3. solairua, sarbidea kaletik. Instalazio elektrikoa eta ate automatikoa. ☎ 943 741 674 / [jotakedos@gmail.com](mailto:jotakedos@gmail.com)
- Bi garaje plaza salgai, Ermuaranbide 9an. Garaje irekiak dira. ☎ 943 743 125 / 686 480 615

**BESTELAKOAK**.....

- Arratoi txakur bat aurkitu dugu, marroi-zuri kolorekoa. Lepoko beltza dauka. Pare bat urte ditu. ☎ 659 692 640
- Belarritako bat topatu dut Ikastolako aldapan. Zilar kolorekoa da, aro formakoa. Udaltzaingoa laga dut.

**KINTOAK**.....

- Aurten 25 urte betetzen dituzten elgoibartarren kinto bazkaria, azaroaren 9an. Interesatuak ondorengo helbidera idatzi: [elgoibar1988@gmail.com](mailto:elgoibar1988@gmail.com)
- 1957an jaiotako mendaroarren bazkaria, uztailearen 13an, Landa jatetxean. Txirristakan batuko dira 13:00etan, eta bazkaria 14:00etan egingo dute. ☎ 688 639 332 / 635 208 128



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



- **Etxebizitza baten jabea naiz. Aire girotuaren aparatu bat jar dezaket fatxadan?** Etxearen fatxada bizilagun guztien elementua da. Beraz, aparatua jarri aurretik Etxejabeen Batzordeak baimena eman beharko du. Lege guztiak testuinguru eta une jakin batean ulertu behar dira, baina legeak berak, ezin dio galarazi ugazaba bati, teknologiaren aurrerapenak bide ematen duena. Ezin dugu orokortu; ikusi egin beharko da, zein motatako fatxada den; zein ezaugarri arkitektoniko dituen, etxearen kokapena...

**Gomendioa: Aurrez aire girotu aparatu bat eraikin batean jartzeko baimena eman bada, egoera hori arautu egin behar da, orain baimena eskatu digun jabeari tratamendu juridiko bera emateko.**

- **Nire etxeko balkoian toldo bat jarri nahi dut. Nahi dudan modelo aukera dezaket?** Etxearen kanpo aldeko itxurari eragiten dion zerbait jarriz gero, ugazaba guztien baimena behar da. Batzordeak ezarriko dituen egitekoaren arauak, modelo eta toldoaren ezaugarriak eta jarri aurretik gehiengoaren onarpena beharko da.

**Gomendioa: Legea betetzen ez duen jabeari, toldoa kendu eta Jabeen Batzordeak homologatutako toldoa jartzeko eskaria egin diezaioke lehendakariak, komunitatearen izenean.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Lailene**, bihar 6 urte egingo dituzulako. Muxu asko gurasoen, eta bereziki Haitzart eta Zugatz anaien partez.



• Zorionak, **Jurdana**, atzo 11 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Eneko!** Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean.



• Zorionak, **Ibon!** Dagoeneko 7 urte, mutil handi! Muxu handi bat anaiaren eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, gaur 3 urte egin dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Naroaren partez. Asko maite zaitugu.



• Zorionak, **Galder eta Ekain**, zuen 9. urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen eta katuaren partez.



• Zorionak, **Iria**, astelehenean 7 urte egingo dituzulako. Ondo pasa eguna, lagunekin. Asier eta Marcosen partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen lehenengo urtebetetzean. Muxu bat gurasoen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Julen eta aitabxo**, bi eta 35 urte egin dituzuelako. Familiakoen, eta bereziki, Iratiren partez.



• *Zorionak zuri, zorionak beti...* Dagoeneko Oierrek 3 urte, eta Iratik laster, 7. Zoragarriak zarete, **bikote!** Muxuak etxekoan partez.

#### AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



Uztailaren 17an, Mintxetako igerilekuetara irteera. Izenemateak ludotekan edo 656 740 793ra deituz, bezperara arte.

Uztailaren 15etik 19ra koadrilen arteko olinpiadak jokatu dira gaztelekuan!



## 12 barixakua

### *Kirola*

22:00 Ehunmilak Ultratrail lasterketari ongi-etorria Azkaraten.

## 13 zapatua

### *Jaiak*

8:00 Sanferminetako entzierroak Kultur Etxean, pantaila handian. Domekan, hilaren 14an, izango da azken emanaldia.

## 14 domeka

### *Jaiak*

19:00 Gazteen Eguna prestatzeko bilera Gaztetxean.

## 18 eguena

### *Aisialdia*

10:00 'Gaztemapping' Gazteen aisialdi ohiturak ikertzeko bigarren lan saioa. Kultur Etxean batuko dira.

## ZINEA

### 'Bestias del sur salvajes'

12, barixakua: 22:30  
(Kalegoen plazan)

Zuzendaria. Benh Zeitlin. AEB, 2012. 92 min. Drama, fantasia. Aktoreak: Quvenzhané Wallis, Dwight Henry, Levy Easterly, Lowell Landes, Pamela Harper, Gina Montana. Planetaren hegoaldean uraren maila zitsu bizian igotzen ari da, eta horren ondorioz, dike guztiak hondoratzen ari dira. Aldi berean, animalia basatiak beraien hilobietatik itzuliko dira. Munduko urruneko leku batean aitarekin bizi den sei urteko neskato baten istorioa dugu hauxe.



Zuzendariak. Patxo Telleria eta Aitor Mazo. Espainia, 2012. 98 min. komedia. Aktoreak: Gorka Otxoa, Sara Cózar, Bárbara Goenaga, Aitor Mazo, Itziar Aienza, Mikel Losada, Unax Ugalde. Bartzelonan bizi den euskal ekonomialaria egoera sentimental zail batean dago. Haren neska-lagun kataluniarra haurdun dago, eta hilzorian dagoen haurtzaroko lagun

### 'Bypass'

6, zapatua: 22:30  
(Kalegoen plazan, euskaraz)



bati, errukituta, berarekin maiteminduta dagoela esango dio, hil egin-go delakoan. Gaixoa ustekabeen sendatu, eta maiteminduaren itxurak egiten jarraitu behar duenean sortuko da benetako arazoa.

### OKINDEGIA

14 domeka:  
**IBARRENEA**



### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

#### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)- Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

### GUARDIAK

### Egunez

9:00 - 22:00

12 Garitaonandia  
13 Yudego  
14 Yudego  
15 Zabaleta  
16 Barrenetxea  
17 Ibañez  
18 Yudego  
19 Etxeberria

### Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego  
Yudego  
Yudego  
Barrenetxea  
Barrenetxea  
Garitaonandia  
Yudego  
Etxeberria



# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 531 847  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolin, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[pagoagasa@euskalnet.net](mailto:pagoagasa@euskalnet.net)

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20





# TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

## ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Txarangaren kalejira amaitu ondoren, 17:00etan, Sigmako aparkalekuan

### MENUA:

- \* Lehenengo platera: Pasta entsalada.
- \* Bigarren platera: Gixatua.
- \* Gazta tarta.
- \* Edariak: Sagardoa, ardo beltza eta ura.

Izenematea Elgoibarko Izarraren bulegoan edo Internet bidez egin behar da ([www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com)). Izena emateko azken eguna uztailaren 19a.

19€

17€

Elgoibarko  
Izarrako  
bazkideak